**UDALERRIEN JABETZAKO ONURA PUBLIKOKO MENDIETAKO BASO-APROBETXAMENDUEN EGIKARITZAPENA ARAUTZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

Baso-aprobetxamendua lotetan **LEIABE 54** deritzon mendian, **ISPASTER** udal-mugartean. Berorren lurgaina honako udal hauena da jarraian adierazten diren proportzio hauetan:

- Lekeitioko Udala, % 66,667
- Ispasterko Udala, % 13,900
- Gizaburuagako Udala, % 3,827
- Amorotoko Udala, % 7,183
- Mendexako Udala, % 8,423

## 1. APROBETXAMENDUAREN BALIOA ETA XEDEA

| | |
|---|---|
| **ESPEZIEA:** | **PINUS RADIATA ETA EUCALYPTUS GLOBULUS** |
| **BOLUMENA** | **PINUS RADIATA: 4.045 METRO KUBIKO, ZUTIK ETA AZAL ETA GUZTI** |
| | **EUCALYPTUS GLOBULUS: 3.478 ESTEREO, AZAL ETA GUZTI** |
| **APROBETXAMENDUREN tasazioa** | **217134,3 €**<br>**(BARNE HARTZEN DA BEZFAREN 130. ARTIKULUAN AIPATZEN DEN OROHARREKO PREZIOKO KONPENTSAZIOA).** |
| A) TASAK ETA ZERGAK: APROBETXAMENDUAREN ZENBATEKOAREN ETA BOLUMENAREN ARABERA EZARRIKO DIRA. | |
| B) ZERGAK: BEZ. INDARREAN DEN LEGERIAREN ARABERA IZAPIDETUKO DA (7/1994 F.A., AZAROAREN 9KOA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARENA. | |


### 1.1. APROBETXAMENDUREN EZAUGARRIAK

#### 1. LOTEA: PINUS RADIATA

| **OPM / UNADA** | **54 (LEIABE) 5. Unada** |
|---|---|
| Azalera | 4,186 ha |
| Espeziea | *Pinus radiata* |
| Adina | 32 urte (1991) |
| Zuhaitz-kopurua | 1.761 zuhaitz |
| Bolumen zenbatetsia | 1.867 m³, zutik, azala eta guzti |
| Aprobetxamendu-mota | Baso-soilketa |
| **OPM / UNADA** | **54 (LEIABE) 7. Unada** |
| Azalera | 22,915 ha |
| Espeziea | *Pinus radiata* |
| Adina | 32 urte (1991) |
| Zuhaitz-kopurua | 4.319 zuhaitz |
| Bolumen zenbatetsia | 3.255 estereo, azala eta guzti |
| Aprobetxamendu-mota | 2. soilgunea |




Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- www.lekeitio.eus – udala@lekeitio.eus




*5 unada (arraseko mozketa) eta 7 unada (2. soilgunea)* LEIABE 54. OPMan

**2. LOTEA: EUCALYPTUS GLOBULUS**

| **OPM / UNADA** | **54 (LEIABE) 2. Unada** |
|---|---|
| Azalera | 4,856 ha |
| Espeziea | *Eucalyptus globulus* |
| Adina | 32 urte (1991) |
| Zuhaitz-kopurua | 3.178 zuhaitz |
| Bolumen zenbatetsia | 2.367 estereo, azala eta guzti |
| Aprobetxamendu-mota | Baso-soilketa |
| **OPM / UNADA** | **54 (LEIABE) 2. Unada** |
| Azalera | 4,856 ha |
| Espeziea | *Pinus radiata* |
| Adina | 32 urte (1991) |
| Zuhaitz-kopurua | 247 zuhaitz |
| Bolumen zenbatetsia | 62 $m^3$, zutik, azala eta guzti |
| Aprobetxamendu-mota | Baso-soilketa |
| **OPM / UNADA** | **54 (LEIABE) 3. Unada** |
| Azalera | 2,116 ha |
| Espeziea | *Eucalyptus globulus* |
| Adina | 32 urte (1991) |
| Zuhaitz-kopurua | 1.655 zuhaitz |
| Bolumen zenbatetsia | 1.111 estereo, azala eta guzti |
| Aprobetxamendu-mota | Baso-soilketa |




*2 eta 3 Unadak (baso-soilketa)* LEIABE 54. OPMan.

### 1.2. APROBETXAMENDUAREN BALIOA

**1. LOTEA: PINUS RADIATA**

| **OPM / UNADA** | Prezioa | Bolumen zenbatetsia | Aprobetxamendu-mota | Modalitatea |
|---|---|---|---|---|
| **54 (LEIABE) 5. Unada** | 43,9 €/ m³ azala eta guzti | 1.867 m³, zutik, azala eta guzti | Baso-soilketa | Arrisku eta mentura |
| **54 (LEIABE) 7. Unada** | 11 €/estereo, azala eta guzti | 3.255 estereo, azala eta guzti | 2. soilgunea | Neurketaren emaitza |
| **Aprobetxamenduaren tasazioa** | **117766,3 € (BARNE HARTZEN DA BEZFA-REN 130. ARTIKULUAN AIPATZEN DEN OROHARREKO PREZIOKO KONPENTSAZIOA)** | | | |

**2. LOTEA: EUCALYPTUS GLOBULUS**

| **OPM / UNADA** | Prezioa | Bolumen zenbatetsia | Aprobetxamendu-mota | Modalitatea |
|---|---|---|---|---|
| **54 (LEIABE) 2. Unada** | 28 €/estereo, azala eta guzti | 2.367 estereo, azala eta guzti | Baso-soilketa | Arrisku eta mentura |
| **54 (LEIABE) 2. Unada** | 32 €/ m³ azala eta guzti | 62 m³, zutik, azala eta guzti | Baso-soilketa | Arrisku eta mentura |
| **54 (LEIABE) 3. Unada** | 28 €/estereo | 1.111 estereo, azala eta guzti | Baso-soilketa | Arrisku eta mentura |
| **Aprobetxamenduaren tasazioa** | **99368 € (BARNE HARTZEN DA BEZFA-REN 130. ARTIKULUAN AIPATZEN DEN OROHARREKO PREZIOKO KONPENTSAZIOA)** | | | |

## 2. APROBETXAMENDUAREN XEDE DIREN ZUHAITZEN SEINALEZTAPENA DESKRIBATZEA

Enkantearen xede den espezieko zuhaitz guztiak moztu beharko dira, merkataritzarako aprobetxamendurik ez daukatenak ere bai.

Nolanahi ere, Mendi Zerbitzuko langileek emandako jarraibideak beteko dira, aprobetxamendua ikuskatzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen den aldetik.

## 3. APROBETXAMENDUAREN EGIKARITZE-EPEA

Egikaritze-epea **URTEBETEKOA** izango da, kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita.

## 4. APROBETXAMENDUA ATERATZEKO ORDUAK

Astelehenetik ostiralera eta goizeko 8:00etatik arratsaldeko 6:00etara, aldeko basozainari aldez aurretik abisua emanda.

## 5. EGURRA ATERATZEKO ERABILI BEHARREKO BIDEAK.

Mendian dauden pistak erabiliko dira.

Baliteke aprobetxamendua egiteko egurra ateratzeko bide berriak sortu behar izatea, bien arteko distantziak aprobetxamendua bitarteko mekanizatuekin egitea ahalbidetzeko. Hala bada, Baso Zerbitzuak baimena eman beharko du bideak irekitzeko, eta zerbitzu hori izango da bideen trazadura lurrean marrazteko arduraduna. Beharrezkoak diren pista berriak irekitzearen kostuak egur-zatiaren adjudikazioa daukan enpresak ordaindu beharko ditu, hautsi ezin den arrokan irekitzen diren pistak izan ezik.

Eguraldiaren ondorioz ateratzeko bideei edo zoruari kalte handiak eragin dakizkiela aldez aurretik antzeman daitekeenean, zuhaitzak botatzeko eta egurra ateratzeko lanetan Baso Zerbitzuak ahalmenak ditu pisu handiko makineriaren erabilera galarazteko.

Aprobetxamendua amaitutakoan, adjudikaziodunak pistetan eta egurra ateratzeko bideetan egin dituen kalteak konpondu beharko ditu. Kalteen arabera, pista orokorrak eta bigarren mailakoak egoera onean uzteko behar diren agregakinak ekarri beharko ditu.

Landutako egurra garraiatzeko auzo-bideak erabiltzerakoan, adjudikaziodunak udal-ordenantzetan edo tokiko edozein xedapenetan ezarrita dauden betebeharrak bete beharko ditu.

## 6. EGUR-PARKEAK

Mendian daudenak.
Ez da egurrik ez mozketaren hondakinik utziko areketan.
Pilatutako egurrak ez du ibilgailuen zirkulazioa oztopatuko.


Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- www.lekeitio.eus – udala@lekeitio.eus

## 7. APROBETXAMENDUA EGIKARITZEA ETA ZUHAITZAK BOTATZEKO EPEAK.

Zuhaitzen mozketa lurraren maila kontuan hartuta, 10 zentimetrotik behera egingo da

Dauden bideetatik eramango da egurra, arrastaka, zutik dauden gainerako zuhaitzak kaltetu gabe.

Zuhaitzak botatzeko epea hilabetekoa izango da (euscalyptus), edo hamabost egunekoa (pinua), lur-neurketatik zenbatzen hasita eta mendiaren barruan ezingo da egurra pilatuta utzi, eukaliptoen anduiak ernamuintzen direnean kalterik ez izateko.

Prozesagailuaren lanaren ondorioz azalen, muturren eta adarren hondar metatuak, ohiz pisten ondoan gelditzen direnak, txikitu, paketatu eta, nolanahi ere, menditik eraman beharko dira, egurra atera ostean, ernamuintzeko. Egiten duenak azpiproduktu horiek merkatura ditzake, horiekin fardoak egiten baditu.

Langile-taldeek arduradun bat izango dute.

Arreta berezia eduki beharko da KALTERIK EZ EGITEKO aprobetxamendutik kanpo geratzen diren eta zutik dauden zuhaitzetan. Modu berezian errespetatu beharko dira basoko zenbait espezie autoktonoren araubide espezifikoaren 11/97 Foru Arauak, urriaren 14koak, bere 1. artikuluan jasota dituen hostozabalak.

Urbazterreko eremuetan (ubide iraunkorrak eta urte-sasoien araberakoak), ur-bazterrean dagoen landaredia dagoen bezala mantendu behar da, ezin da ebaketaren hondakinik bertan pilatu eta neurriak hartuko dira urak ez uhertzeko.

Aprobetxamendua bukatzean, sortutako hondakin guztiak bilduko dira, eta mendia garbi utzi beharko da, edo, gutxienez, lanak hasi aurretik zegoen egoera berdinean.

## 8. ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

- Langile-taldeek arduradun bat izango dute eta lanak modu jarraituan egingo dira.
- Lanak etenik gabe egingo dira. Aprobetxamendua egiten den bitartean langile-aldaketarik badago, zonako basozainari jakinarazi beharko zaio.
- Lan arriskuen prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez, garatu zuen urtarrilaren 30eko 171/2004 ED-a betez, lanak hasi baino lehen, arriskuen ebaluazio bat eta lantokian egingo diren eginkizunen prebentzio-jardueraren plangintza aurkeztu behar dira.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legea betez, langileen eta hirugarrenen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko ditu; horretarako, bere mende dauden pertsona guztiei beharrezko elementuak emango dizkie, hala nola: norbera babesteko ekipamenduak, kolektiboak, trebakuntza eta informazioa; obran erabiltzen diren norbera babesteko ekipamenduek CE marka izan beharko dute, egoera onean emango dira eta erabilera-gomendioekin batera fabrikatuko dira.


Lekeitioko Udala – Gamarra kalea 1 – 48280 LEKEITIO (Bizkaia) IFK/CIF: P4806700C Tlf.- 946034100- www.lekeitio.eus – udala@lekeitio.eus